

UTZIZURE MEZUA SEINALEAREN ONDOREN

ARANTZA PORTABLES-ENA
ZUZENDARITZA; FERNANDO BERNUÉS

#MIREN ARRIETA #MIREIA GABILONDO
#OIHANA MARITORENA #LEIRE RUIZ

TANTAKA
teatroa



UTZI ZURE MEZUA SEINALEAREN ONDOREN

Utzi mezua seinalearen ondoren lau ahotseko istorioa da. Bizi ditzuten arazoei aurrez aurre ezin heldu dabiltzan lau emakume-
ren ahotsak dira, eta nahiago izango dute gertatzen zaien hori
erantzungailu automatiko bati aitortu. Marina, Carmela, Sara
eta Vivianak ahots-postontzia terapia gisa erabiliko dute beren
burua ulertzeko, eta batez ere, besteek haiek uler ditzaten.

Marina abokatua da, dibortzioetan trebatua eta bere senarrak
utzi izanari aurre egingo dio; Carmelak minbizia du eta semeari
agurra eman nahi dio; Sara familia oneko gaztea da eta ezkon
aurreko presioak jarri du bere buruaz beste egiteko egoeran eta
psikologia terapia balizko bati heltzekotan, eta Viviana prostitu-
ta da Madrilen, bere familiak Ikean ari dela uste badu ere.

Pertsonaietako bakoitzak bere istorioa du, eta mezuz mezu
azaleratzen doa ilun argitan, pixkanaka kontakizun intimoen
multzoa osatuz doa, batzuetan irrigarri, besteetan oso adi-
mentsu, ia beti hunkigarri, eta tarteka suntsitzaile. Saretan
gertatzen denaren kontrara, zaratarik, egorik, handikeriarik eta
gezurrik gabeko kontakizun korala da. Bertan bizitzaz eta he-
riotzaz, familia arteko harremanez, sentimendu harremanez,
independentziatz, ezkonduetz, amatasun arduratsuaz, egiaz eta
gezurraz, zintzotasunaz, fideltasunaz, traizioaz, loturaz eta ga-
leraz..., biziminez... hitz egingo da. Eta, guzti horren gainetik,
beti dantzan komunikazio ezaren laguna denaz: bakardadeaz.

Lau istorioak hasera batean elkarrengandik urruti badaude ere,
ekintza aurrera doan heinean, pixkanaka, modu leun batean,
elkarren artean lotzen doaz, pertsonaia batzuk besteekin, guz-
tiok partekatzen duten egoera amankomun batean: hitzaren
sekulako askatze indarraren istorioan.

Utzi mezua seinalearen ondoren, maitasunari, bakardadeari
eta mugikorren garaietako komunikazioari eskainitako begira-
da adimentsua, zirrargarria eta umorez betea da.

**ESTREINALDIA
EUSKARAZ,
2019/10/15
BILBOKO ARRIAGA
ANTZOKIAN**

FITXA ARTISTIKOA

Egilea

ARANTZA PORTABALES

Egokitzapena

FERNANDO BERNUÉS / KIKE DÍAZ DE RADA

Itzulpena

AIZPEA GOENAGA

Interpreteak

MIREN ARRIETA

MIREIA GABILONDO

OIHANA MARITORENA

LEIRE RUIZ

Zuzendaria

FERNANDO BERNUÉS

Zuzendari laguntzailea

SARA CÓZAR

Denon laguntzailea

NORA ZABALA

Espazio Eszenikoa

FERNANDO BERNUÉS / EDI NAUDO

Argiztapena

DAVID BERNUÉS

Ikusentzutezkoak

ACRÓNICA PRODUCCIONES

Proiektzioen irudiak

JOSÉ IBARROLA

Jantzitegia

ANA TURRILLAS

Teknika

ACRÓNICA PRODUCCIONES

Argazkilaritza

JUANTXO EGAÑA

Diseinu grafikoa

GRAFIKOKI

Administraritza

MAITE GORROTXATEGI

Ekoizpen exekutibo

ANE ANTOÑANZAS

Ekoizpena

NAGORE PLAZAOLA

Egilearen errepresentatea

ROLLING WORDS

Eskerrak

AJTOR BELTRAN, JOSÉ IBARROLA, HARITZ LETE,
IÑAKI RIKARTE, PATXO TELLERIA

Banaketa

PORTAL71

EGILEA

Arantza Portabales Santomé (Donostia, 1973) Zuzenbidean lizentziaduna da Santiagoko Unibertsitatean, eta funtzionarioa Galiziako Xuntako Finantzen goi-eskalan. Idazle gisa 2013an hasi zen, mikroipuin generoan. Hainbat liburu kolektibotan hartu du parte, hala nola: «40 plumas y pico», «Las palabras contadas», «Lecturas d' Espagne, volumen 2», «Purorrelato de Casa África, volumen 2», «Escribo 3», «Microvuelos», «Cinco cuentos», «Aletreos» eta «Claroscuros». 2015eko urrian argitaratu zuen lehenengo mikroipuin liburua: «A Celeste la compré en un rastrillo» (Zaera Silvar, 2015). Urte berean, galegoz idatzi zuen nobelak, «Sobrevivindo» (Galaxia, 2015), La Voz de Galicia egunkariaren XV. Emanaldikako nobela saria irabazi zuen. 2017an, «Circular C1: Cuatro Caminos- Embajadores» kontakizunari esker UNEDeko Narrazio Laburren Lehiaketaren XVIII. edizioa irabazi zuen. 2017an ere, «Las Musas» mikroipuinak Barberà del Vallès-eko Mikroliburutegiaren urteko lehiaketa irabazi zuen. «Deixe a súa mensaxe despois do sinal» (Galaxia, 2017) da bere bigarren eleberria. Gaztelarrera eta italierara itzuli zen 2018an, eta alemanerako eta hebreerarako itzulpenak bidean dira.



ZUZENDARIA

Fernando Bernués Gambarte, (Donostia, 1961) Tanntaka Teatroa eta Tentazioa Produkzioakeko sortzaileetako bat izanik, arrakastaz aritu da arlo ezberdinetan, antzerkia, zinema, telebista... Bere lanen artean, zinemari dagokionez, Kutsidazu bidea, Ixabel edo Soinujolearen semea daude besteak beste; eta telebistan, hurrengo telesail famatuena zuzendari edo zuzendarikide izandakoa da: Maite, Ertzainak, Mi querido Klirowsky eta Mugaldekoak. Arte eszenikoetan erreferente bat da gaur egun, bere jardura profesional luze eta ezaguna dela eta; bere lan famatuena artean, El Florido Pensil, Novecento el pianista del océano, Paradero Desconocido, La dona justa, Contra el viento del norte, Soinujolearen semea, Muxua, Uda gau bateko ametsa (Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko proiektu goraiatuena), Soka edo Si mireu el vent d'on ve daude, besteak beste.



INTERPRETEAK_



Miren Arrieta Donostian jaioa eta Madrilen bizi den aktorea gaztea da. Golazen telesailean (EITB) hiru denboraldiz lanean jardun den bitartean, interpretazio ikasketak burutzen aritu da Juan Carlos Corazza eta Work in Progress eskoletan.

2019an, Bernardo Atxagaren eleberrri famatuenetako batean oinarritutako «Soinujolearen seme» luzemetraian parte hartzen du, Fernando Bernuések zuzenduta.



Mireia Gabilondo Bergara, 1964. Mireia Gabilondo Tanttaka Teatroaren kideetako bat da, eta Tentazioa Produkzioak-eko bazkidea. Esperientzia zabala du zuzendaritzan eta interpretazioan, eta Euskal Herriko arte eszeniko eta ikus-entzunezkoetan figura nagusienetakoa dugu, antzerkian, dantzan, zinemari eta telebistan arrakasta handia lortu baitu: «Kutsidazu Bidea, Ixabel», «Mugaldegoak» edo «Amaren Eskuak» filmak zuzendu ditu, besteak beste, eta «Soinujolearen semea» eta beste obra arrakastatsu batzuetan antzeztu du. Telebistan, besteak beste, «Jaun ta Jabe», «Hertzainak», «Martin» edo «Mi querido Klikowsky» telesail ezagunetan hartu du parte aktore, gidolari eta zuzendari gisa. Oholtzaren gainean, hauek dira nabarmentzeko lanik berrienak: «Soinujolearen semea», «Nacidos culpables», «La Calma Mágica», «Muxua» eta «La casa de la llave», besteak beste. Zuzendari moduan egin dituen azken muntaketak: «Último tren a Treblinka», Vaivén konpainiarena; «El Florido pensil NIÑAS» Fernando Bernuésekin batera zuzenduta; «Strip-tease», Loraldia festibalerako sortutako pieza; eta, azken arrakasta, «Erlautza/Enjambre».

INTERPRETEAK_



Oihana Maritorea, hamabost urterekin EITBko Goenkale telesailan lanean hasi zenetik, zinema, antzerki eta telebistan lan egin duen aktore eta dantzaria da. Kate bereko beste hainbat telesailetan parte hartu du, hala nola, Hasiberriak, Balbemen-di eta Kilker Dema. Era berean, la Sexta kateko Qué vida más triste saioan parte hartu du eta baita Telecincoko Hospital Central eta hainbat TV Movietan; Patxi Barco zuzenduriko Sabino edo Luis Mariásen Luna llenan. Protagonista bezala parte harturiko bi luzemetrai ere baditu bere lanen artean; Alberto Gorritibereak zuzendutako Eutsi eta Diego Fandosoren Cosmos. Guzti honez gain, antzezlan ezberdinetan ikusi ahal izan dugu; Vaivén Produccionesen Lotsagabeak/Sinvergüenzas, eta Miaules, Microteatro SSren Lavar y cortar eta CenTcienta, Xepeta Produksioak Tomaxen abenturak, etab. Dantzari bezala Ertza konpainiaren Bihar jaio nintzen lanean parte hartu zuen, ta Verdini Dantza Taldearen eta Kresala DTarekin ere proiektu ezberdinetan aritu da. Lan hauek guztiak, aurkezle lanekin batera burutu ditu, Donostiako Zinemaldian, eta EMUSIK nazioarteko musika festibalean, Mintzalagun ekitaldietan.



Leire Ruiz, aktore nafarra, Madrilgo William Layton antzerki-laboretegiaren ikaslea. Besteak beste Jose Carlos Plaza, Mar Navarro eta Arnol Taraborellerekin osatu zuen prestakuntza. Hauek dira aktore gisa egin dituen azken lanak: «Erlauntza», Mireia Gabilondok zuzenduta; «La Prueba», Emi Ecay eta Carmelo Gómezek zuzenduta; «Windermere Club» eta Darío Foren «Aquí no paga nadie», biak Gabriel Olivaresek zuzenduak; Pedro Miguel Martínezek zuzendutako «La discreta enamorada», eta Paco Mirren moldaketa den «Qué desastre de función», Alexander Heroldek zuzenduta. Horrez gain Inextremis konpainiarekin Proiektu Eszenikoaren 2017ko Gayarre Saria irabazi zuen, Jose Padillak zuzendutako «Medida por medida» lanari esker. Nabarmentzekoak dira Gayarre Antzokiko produksioak: «La Casa de Bernarda Alba», Carme Portacelik zuzenduta; «Casa de Muñecas,» Miguel Munárizek zuzenduta; eta «La importancia de llamarse Ernesto», Alfredo Sanzolek zuzenduta. Telebistan egindako lanen artean EITBren «Vaya Semanita», «Euskolegas» eta «Nekane Amaya: mi gran boda gitana» telesailak daude, bai eta Antena3-eko «Allí Abajo» ere. Halaber, Inprobisazio moduluko irakaslea da Facalen Work in Progress interpretazio eskolan, Madrilan.